

BEZEROEIKIKO - HARREMANAK

Gure helburua komunitate bat sortzea denez, harremana funtsezkoa dela iruditzen zaigu, beraz, kominikazio bide azkarrak eta eraginkorrak jarriko ditugu eskuragarri.

Gure aplikazioak sail berezi bat izango du, non edonork ahalko dituen galderak, proposamenak egin edo laguntza eskatu. Hau email edota telefono bidez egingo dugu, gure usteen modu eraginkorrena baita bezeroengana era azkar batean iristeko eta erantzuna ere halakoa izateko. Bestalde, Intagram bidez ere arituko gara gure bezeroekin harremanetan.

Guretzako berezik garrantzitsua den beste puntu bat da bezero bakoitza gure atenzio guztiarekin zaintzea eta beharrezkoa duen laguntza guztia ematea. Era honetan gure bezeroak gustora eta zainduta sentituko direla uste dugu, eta honek gure bizimodua hobetzera lagunduko digu denon artean komunitate bat sortuz. Bezeroen egoera ona beharrezkoa baita bezero berriak erakartzeko, eta gure betikoak ekarriko duen jende berri guztia ezagutzeko prest gaude.

Harreman hauek automatizatuak izango dira alde batetik baina bestetik urtean bitan konferentziak eskertuko ditugu, jendeak gure ideologiari buruz gehiago jakin dezan. Ekitaldi hauek datak aplikazioko plataformara igoko dira, bezero juztiak jakin ditzaten. Konferentzia hauetan parte hartuko dute gurekin lan egiten duten denda eta enpresa ekologio ezberdinek, beraien produktuak eramanez mundu guztiak probatzeko helburuarekin eta horrela, helburua ulertu, aplikatu eta gozatu dezaten.

